

EBAZPEN BATZORDEAREN BILERAREN

AKTA

2016ko apirilaren 5a

Donostian, 2016ko apirilaren 5eko 17:00ak direnean, Gipuzkoako Batzar Nagusien egoitzan honako hauek bildu dira: Ebazpen Batzordeko lehendakari Juan Luis Ibarra Robles jn., eta Batzordeko kideak diren Andrés María Urrutia Badiola jn., Javier Balza Aguilera jn., Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn., José Ramón Bengoetxea Caballero jn., Kepa Bilbao Gaubeka jn. eta María Carmen Agoues Mendizabal and. Batzordeko idazkaria den Begoña Basarrate Aguirre and. ere bileran egon da. Honako erabaki hauek hartu dituzte:

ERABAKIAK

BAKARRA.- 1/2015, 2/2015, 3/2015 ETA 4/2015 ESKUMEN-ARAZOETAN IZENDATUTAKO TXOSTENGILEEK AURKEZTUTAKO TXOSTEN-ZIRRIBORROEN AZTERKETA. AIPATUTAKO ESKUMEN-ARAZOAK, HURRENEZ HURREN, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK, ARABAKO BATZAR NAGUSIEK, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAK AURKEZTU ZITUZTEN “EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOKO ERAKUNDEEN BARNE ANTOLAKETARI” BURUZKO LEGE-PROPOSAMENAREN AURKA.

1.) Aurkeztutako txostenak ondoko hurrenkeraren arabera aztertzea erabaki da:

1. Kepa Bilbao Gaubeka jn.
2. Carmén Agoues Mendizabal and.
3. Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jn.
4. Andrés María Urrutia Badiola jn.

EBAZPEN BATZORDEA
COMISIÓN ARBITRAL

2.) Kepa Bilbao Gaubeka jaunak “foraltasunaren muin ukiezinaren marko orokorra”ri buruz aurkeztu zuen zirriborroa aztertu eta berorri buruzko hausnarketa orokorra egin da, eta erabaki da 4. orrialdeko bigarren paragrafoko hainbat zehaztasun alboratzea, hala nola aurkeztutako testuan sartutako behar gabeko xehetasunen bat ere bai. Ildo honetan, bai lehendakari jaunak bai batzordeko kideetako batzuek adierazi dute aurreikustekoa dela txostenaren aurrean “obiter dicta” izaeradun gogoetak aldatu edo kentzeko iradokizunak aurkeztea. Haiek guztiak ordea, ados daude txostenaren konklusio gisa jasotzen den “foraltasunaren muin ukiezinaren” definizioarekin.

3.) Carmen Agoues Mendizabal andereak “Foru Ogasunen arloko eskumena eta udalen finantza-tutoretzaren egikaritzea”ren gainean aurkeztu zuen txosten-zirriborroa erakusgai jarri da eta hango puntu nagusien gaineko analisi xehetu bat burutu da. Halere ez da posible izan emandako denboran hausnarketa amaitzea eta zehazteko geratu da Ebazpen Batzorde honen hurrengo bilerarako.

4.) Arrazoi beragatik hurrengo bilerarako geroratu dira ere Juan Ignacio Ugartemendia Eceizabarrena jaunari esleitutako txostenaren azterketa eta analisia, zeinaren gaia izan baita Lege-Proposameneko 2. kapituluak aipagai duen “eskumenen markoari hurbilketa, gobernu arteko lankidetzari dagokionez”, hala nola Andrés M^a Urrutia Badiolari dagokiona, hots, “Eusko Legebiltzarraren eskumen legegilearen zedarriztapenaren berezko foru-erregimenaren bermearen proiektzioa”.

Azpmarratzeko moduko besterik ez dagoenez, bukatutzat ematen da bilera hau, 20:00ak direnean, eta bertaratutakoei dei egiten zaie hurrengo saiorako, zeina 2016ko apirilaren 19an, 17etan egingo baita, Gasteizen, Eusko Legebiltzarraren egoitzan. Akta hau egin da eta Batzordeko lehendakariak eta kideek sinatu dute. Nik, idazkariak, fede ematen dut.